

PRESTAKUNTZA-ATALAREN IDENTIFIKAZIO-DATUAK

PRESTAKUNTZA-ATALA	KOADRO EDO ZERTXA METALIKO BIDEZKO EUSPENA	Iraupena	60
		Baldintzatua	
Kodea	UF0775		
Lanbide-arloa	ERAUZKETA-INDUSTRIAK		
Lanbide-eremua	Meataritza		
Profesionaltasun-ziurtagiria	Lehergai bidezko lurpeko indusketak	Maila	2
Prestakuntza-modulua	Koadro, zertxa eta ainguraketa bidezko euspena	Iraupena	240
Modulua osatzen duten gainerako prestakuntza-atalak	Lehergai bidezko lurpeko indusketako lan-arriskuen prebentzioa (zeharkakoa)	Iraupena	60
	Hainbat buloi-mota bidezko euspena		60
	Erortzeak altxatzeko eta hesia jartzeko teknikak		60

A atala: **GAITASUN-ERREFERENTEA**

Prestakuntza-atal hau bat dator UC0419_2 KOADRO, ZERTXA ETA AINGURAKETA BIDEZKO EUSPENA EGITEA gaitasun-ataleko LB3 lanbide-burutzapenarekin

B atala: **AHALMENEN ETA EDUKIEN ZEHAZTAPENA**

Ahalmenak eta ebaluazio-irizpideak

A1: Koadro edo zertxa metaliko bidezko euspena egitea, ezarritako prozedurari jarraikiz, baa segurtasunez eta aurreikusitako mozketarekin egonkortzea lortuz.

E1.1 Koadroaren edo zertxaren elementuak, lotzeko osagarriak eta estaltzeko materialak identifikatzea.

E1.2 Koadroko edo zertxako elementuak muntatzeko eragiketak deskribatzea, koadroaren edo zertxaren piezen arteko teilakatzeko distantziak aplikatuz.

E1.3 Euspen-habexka aurreratzeko eta finkatzeko ezarritako lan-prozedura deskribatzea, eskoratzeko distantziaren arabera.

E1.4 Koroak habexka gainetik jartzeko eta bastidoreak aurreko koadroari lotzeko ezarritako lan-prozedura deskribatzea.

E1.5 Hesolak jartzeko zutoin horiek koroekin eta aurreko koadroarekin edo zertxarekin lotzeko ezarritako eragiketen sekuentzia zerrendatzea.

E1.6 Ebakidura handietan, koadroa edo zertxa aurretik muntatzeko behar diren eragiketak azaltzea. Aurretik muntatzeko piezak elkartu egingo dira eta ondoren plataforma bidez jarriko da, bastidoreen bitartez aurreko koadroari lotuz.

IE1.7 Estaldura egokia identifikatzea eta ezarpena deskribatzea, paketatze- eta egonkortasun-mailak lurra induskatutako perimetrotik desplazatzea eragozteko.

E1.8 Koadroak edo zertxak jartzeak dituen arrisku espezifikoaren prebentzio-neurriak zerrendatzea: atmosfera, arrokak erortzea, kolpeak edo inpaktuak koadroekin edo zertxa metalikoekin eta giharretako nahiz hezurretako lesioak, karga astunak manipulatzearen eta jarrera egokiak ez izatearen ondoriozkoak.

E1.9 Egoera espezifiko batean:

- Habexka aurrerantz mugitzea.
- Koroak jartzea eta azken koadroari edo zertxari lotzea.
- Istilak egitea, zutoinak jartzea, eta azken koadroari lotzea.
- Giltza dinamometrikoa erabiltzea elementuen lotura-elementuen estutze-presioa egiaztatzeko.
- Estaldura jartzea.
- Koadro edo zertxa oso bat muntatzea plataforma duten ebaketa handietan jartzeko ondoren.

A2: Enpresaren antolamendu espezifikora egokitzea eta garatu beharreko lan arduratzea, bereziki segurtasun-baldintzak betetzeari dagokionez.

EI2.1 Enpresaren prozedurak eta barne-arauak identifikatzea, balioestea eta onartzea.

EI2.2 Enpresan ezartzen diren harreman teknikoak eta lan-arlokoak identifikatzea.

EI2.3 Bere lanari dagokion erantzukizuna identifikatzea eta bere gain hartzea ekipoko lanaren esparruan eta bere goragokoekiko eta, hala badagokio, laguntzaileekiko harremanen esparruan.

EI2.4 Maneiatzen dituen ekipamenduen, makinen eta erreminten kontrolari, maneiuari eta mantentze-lanei dagokionez eta bere lan-ingurune ordenari eta garbiketari dagokionez erantzukizuna bere gain hartzea.

EI2.5 Lan-arriskuak identifikatzeko interesa erakustea eta dagozkion segurtasun-neurriak hartzeaz eta errespetatzeaz arduratzea.

Edukiak:

1. Euspen pasiboa: koadro edo zertxa metalikoak.

- Eskoratzearen ezaugarriak: Erresistentzia. Malgutasuna. Egonkortasuna.
- Eskoratzearen elementuak: Armazoiak. Txarrantzatzea. Estaldura.
- Eskoratzete metaliko irristakorra, TH profila. Armazoiaren elementuak: zutoinak eta koroak.
- Lotura-elementuak: grapak. Txarrantzatze-elementuak: trabankatxoak eta bastidoreak.
- Muntaiarako eta lanerako ezarritako prozedurak (gainjartzeak, distantziak, eta abar).
- TH koadro metalikoen katalogoaren interpretazioa.
- Zertxa metalikoak. Erabilitako profil-motak.
- Erremintak, lanabesak eta osagarriak:
 - Giltzak: finkoa eta inpaktu-giltza. Lehen mailako mantentze-lanak egitea.
 - Mailu pikatzailea. Lehen mailako mantentze-lanak eta zatikatzea.
 - Organo mekanikoen, oleohidraulikoen eta pneumatikoen funtzionamendurako printzipioak.
 - Koipeztatzearen oinarriko printzipioak: iragazkiak, koipeztigailuak, lubrifikatzaileak.
 - Aire konprimatuko mahukak, loturak, akoplamenduak, eta mahukak konpontzeko prozedurak.
 - Giltza dinamometrikoa.
 - Barratxoak, mazoak, eta abar.
- Estaldura. Trinkotze- eta egonkortasun-maila. Materialak: zura, parrilla, xafla metalikoak, obra-hondakinak eta bestelako materialak. Ezarritako lan-prozedurak.

2. Koadroak edo zertxak jartzea.

- Habexka aurrerantz mugitzea.
- Koroak jartzea eta azken koadroari edo zertxari lotzea.
- Istilak egitea, zutoinak jartzea, eta azken koadroari lotzea.
- Giltza dinamometrikoa erabiltzea elementuen lotura-elementuen estutze-presioa egiaztatzeko.
- Estaldura jartzea.
- Koadro edo zertxa osoa muntatzea.

C atala: **ESKAKIZUNAK ETA BALDINTZAK**

Baldintza hauetakoren bat bete behar da:

- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduatu-titulua izatea.
- 2. mailako profesionaltasun-ziurtagiriren bat edukitzea.
- Lanbide-arlo eta -eremu bereko 1. mailako profesionaltasun-ziurtagiriren bat edukitzea.
- Erdi-mailako heziketa-zikloetan sartzeko baldintza akademikoak betetzea edo erdi-mailako zikloetara sartzeko dagozkion probak gainditu izana
- 25 urtetik gorakoentzako eta/edo 45 urtetik gorakoentzako unibertsitatera sartzeko proba gainditu izana.
- Prestakuntzari behar adinako probetxua ateratzeko behar diren prestakuntza- edo lanbide-ezagupenak izatea, ezartzen den araudiaren arabera.

Prestakuntza-atal hau egiteko gainditua izan behar du UF0770 Lehergai bidezko lurpeko indusketako lan-arriskuen prebentzioa

Prestatzaileen, instalazioen eta ekipamenduen arloko eskakizunei dagokienez, profesionaltasun-ziurtagiri honetarako ezarritako eskakizunak hartuko dira kontuan: Lehergai bidezko lurpeko indusketak